

Etxahun, *Bi berset dolorusik* (1831)

Testua :

5	Bi berset dolorusik nahi dizüt khantatü, Plazer düzielarik, jente hunak, behatü. Berrogeita lau urthez ni izan persegitü, Nun etzaitadania familia jelostü, Oroz arnegatürik nahi nüzü phartitü.	35	Ni Ajenan libratü, etsaien artin sarthü, Hunak galdürik, haurrak dohakabe baratü, Eni hen ikhustiak odola alteratü; Atzione triste bat süjet hartarik heltü, Harzara jüstiziak ni berriz presu hartü.
10	Ene persegizalen lehen süjeta zer zen, Eskrüpülariekin dereziet erranen: Aita batek taka hau zian bere haurraren, Haren egiteik gabe ni amak sorthü ükhen, Ezpeinitzeion aski jiten zeiztan primajen.	40	Gaztelin nintzalarik biziiaz etsitürik, Promes bat egin neion sendo nahiz Jinkuari, Kitatüren nütila hunak eta uhuriak, Mündü huntako plazerak, haurrak ta emaztia, Bai eta segitüren zelilako bidia.
15	Ene gazte denboran ez lagünak bezala: Hurak txostakan eta ni nigarrez ardüra. Entzünik egüzaita aitak bildü zeitala Bere hiru etxaltez ene desprimützera, Hüllan ezarri nintzan fi-gaxto egitera.	45	Hamasei jakiletan zortzi falsü banütin, Her behatü balira galtzia segür beinin. Zelüko Jinko Jaunari promes neron egin, Ezarten banündian jaun haiez libertatin, Enintzala egonen ene etsaien artin.
20	Hartü nin emaztia aitak desiratia, Ustez ükhenen nian halaz haren bakia; Bena egin zilakoz haren althe jartia, Eginerazi zeitan funtsen partajatzia, Presun jan erazteko amak ützi phartia.	50	Bost urthe igaran tit prozeskan tentatürik, Bihotzez enialarik herria kitatürik; Ene haur maleruser zerbeiten ützi nahiz, Bena ezin izanez deüsez satifatürik, Orai arren banua oroz arnegatürik.
25	Bost urthez presuntegin egon niz inozenki; Emaztia xalanteki, harez nintzan jelosi. Anaie batek zeitan bi lekhü ordeñüz ützi, Ber denboran aurhidek hurak fraudaz ebatsi, Haren ordeñü huna beitzien hautserazi.	55	Nik dütüdan xangriak ene eskandaleti, Ezpeinintzan ebili Jinkuaren bideti: Deliberatü ükhen dit juraitia pelegri, Adio sekülakoz erranik herriari, Haurrak deitzodalarik gomendatzen Jinkuari.
30	Ni Ajenan bi urthez, libre nintzala ustez, Bena aita orano ez ase mendekatzez; Jaun horier galthatü ükhen otoritatez, Presu begiratzeko librantxaik ükhen gabez, Eta ere edüki hamar bat hilabetez.	60	Zelüko Jinko Jauna, hau düzü mementua, Kunplitzen betereizüt egin neizün botua, Kuntre nian denboran ene lagiün gaxtua Zük hedatü zünian ene althe besua, Bestela presuntegin hil behar nin, gaxua.

65	Pharkatzen dit etsaier eni sofri-erazler, Hala nula beiteie Jinkuak egin berer, Bena ezti pharkatüren eniak dütiener, Nun eta ezütien errendatzen ene haurrer, Berset horrez mintzo niz küñat eta aurrider.	90	Abelen denborati eta süitan bethi, Jinkuaren haitatiak ziren kürütxiareki; Bena ezarten zütin konfidantziareki, Mündiaren huñ petan zaudelarik ümilki, Hitz hoiez haur maitiak orhit zitaie bethi.
70	Ene lehen aizua, hi, eskandal gaxtua, Orai khentürük dükek ene ephantxügua: Kita-ezak ingoiti ene espusa gaxua, Badik bai hire ganik aski malerusgua, Eztizoiala gal-eraz senharra ta Jinkua.	95	Eztizüt nahi hunik ez eta uhurerik, Mündü huntan gozatü, Jinkua bera baizik. Adio arren ene hunak bai eta uhuriak, Askazi, adixkide, haurrak eta bestiak, Oro üzten zütiet, segitzeko Jinkua.
75	Adio ene lagüna urthuki nüdüzüna, Pharkatürük dükezü eni egin ogena. Edükazü prüdenki alhargüntszen züzena, Haur trixte hoier egin ahal diokezüna, Beste mündian gitin oro hel algargana.	100	Ene alhaba bakhotxa, etxean üsatü kondüta, Küñater beria eman, haurrer Jinkuren kreinta; Senharraren hun izan, zaharrak errespeta; Plega hadi gazteti nahi gabe orota, Gaizkiren beldür izan, Jinkua guri so beita.
80	Musde Alkhat Barkoxe, zütan dizüt sinheste, Zuri egiten deizüt ene photerez trite, Ene haur maleruser aita jar zakhitze, Trite haiez balia haien etsaien kuntre, Zure karitatia Jinkuak orhit düke.	105	Adio Barkoxtarrak, zahar eta gaztiak Heben jente praubiari ürrikal zidienak; Zien gomendietan, üzten tüt ene haurrak, Ihuren sekursik gabe diren malerus hurak, Jinkuak badakike ziek egin hunkiak.
85	Ezpiritü saintia, orfelinen althia, Zuri egiten deizüt hurrez gomendatzia; Etziezü mankatüren haier trixte izatia, Zük erakuts-izezü saintüki bizitzia, Beste mündian dezen ükhen alagrantzia.	110	Ene haurrak adio, seme alhabak oro, Josafateko sorhun arrakuntra artino! Ükhen izozie bethi Jesüsi amodio Heben ükhena gatik aphür bat eskarnio, Han sendotüren dira zien zauriakoro

Aldaera zaharrek**in** **aztertzen** segitzeko, ablatiboan gaur-egun dugun *-k* ez da agertzen. Etxahunen testuan adibide anitz ditugu : *eskandaleti* (51), *bideti* (52). Baina Etxahunek ablatiboaren beste aldaera bat ere baliatzen du bere obran : *-rik* forma zaharra. Adibide bakarra dugu testuan, *hartarik* (34).

Soziatiboaren kasuan ere fenomeno berdintsu bat gertatzen da, bukaerako *-n* desagertzen **ez da galtzen, ez da ageri, baina ez da galdu** baita aldaera zahar hortan : *küütxiareki* (92), *konfidantziareki* (93) ... Egungo forma aldiz, aldi bakar batez agertzen zauku : *Eskrüüülaekin* (7).

Elementu biziki interesgarri bat **obserba** genezake 5.koplan, *jelosi* (22) adjektiboaren bukaerako *-i* hori Bearnese hizkuntzaren morfologiari eginiko mailegu bat baita **aditza balitz morfologia litzateke, fonologia da hau, adjk. baita, ez da aditzaren marka morfologiko bat, maileguzko adjk. bat baizik** Elementu horrek testua espazioan kokatzen laguntzen gaitu, Barkoxe Biarnoko mugatik biziki hurbil baita.

Ondotik, *Her* (42) erakusleak Etxahunen hizkerari buruzko bi informazio emaiten dauzkigu. Hasteko 'haiek' erakuslearen 'hek' forma zaharra erabiltzen du koblakariak (beste adibide bat : *hen* (33)). Baina ez **hori** bakarrik **hori**, gaur-egun Ipar Euskal Herrian oraino mintzo den datibo pluralaren forma zaharra ere ikus dezakegu, *maleruser* (48), *Künater* (97) eta *haurrer* (97) adibideetan bezala. **aurrehistorikoa da, baina berrikuntza da, berrikuntza zaharra**

Aditz nagusien azterketarat pasatzeko, lehenik *e-* aurrizki zaharraren adibide bat atxeman genezake kopletan : *ebili* (52). Hala ere, behin bakarrik agertzen da gaur-egunerat heldu ez den forma hortako aditz bat.

Segitzeko, etorkizuna markatzeko aspaldiko *-tu + -ren* egiten du bertsulariak : *kitatiüren* (38), *pharkatiüren* (63) ... Fenomeno bera errepikatzen da *-n-z* bukatzen diren aditzetan, *erranen* (7) eta *ükhenen* (17) adibideetan ikusten den bezala. Azpimarratzekoa da ez duela sekulan *-ko* atzizkia erabiltzen funtzio hortarako.

Aditz izenen kasuan, *-tu* ez diren aditzek *-te* forma hartzen dute eta ez *-tze* : *jartia* (18) ('jarte' aditz-izena), *ezarten* (44) ('ezarte').

Morfologiaren zatia bukatzeko aipa ditzagun aditz jokatuak.

Hasteko, **eradun* aditzean *au > ai > ei* fenomeno bokalikoa gertatzen da. *dereiziet* (7)-en kasuan adibidez, *derauzuet > deraiziet > dereiziet* litzateke prozesua. *zeitala* (13)-ren kasuan *zerautala > zeraitala > zereitala* gero *zeitala*-rat laburtu aitzin (suposatzen ahal da azken laburketa hori komeni zaion silaba kopuruaren arabera egiten duela, ala ez).

Beste motako murrizketa morfologiko bat gertatzen da *izan* aditzarekin. *niz* (21) aditz jokatu eman baitu **naiza > naiz > niz* prozesuak.

Bestalde, azaltzen zaila den fenomeno bat **obserba** genezake *etzeitadonian* (4) aztertzen badugu. Izan ere, datibo morfemaren errepikapen bat gertatzen da, hots, 1.pertsonaren marka bi aldiz agertzen da, *-ta* eta *-da*-k funtzio bera betetzen baitute aditz hortan. Hala ere, beste koplak batzuetan *zeitana* (19) edo *zeitala* (13) forma baliatzen du, zeinetan datibo marka behin bakarrik agertzen den. Aldi huntan ere nahi zuen forma baliatu du koblakariak, behar zuen luzeraren arabera.

Beste elementu bat aipagai, hipotetikoan, **edin* zaharra baliatzen du Etxahunek : *banüindian* (44) ‘baninduen’ adierazteko. *edun da, ez da *edin*

Testua espazioan kokatzen laguntzen gaituen beste elementu bat agertzen zauku *düzielarik* (2) edo *nintzalarik* (6) aditz laguntzaileetan. Izan ere Iparraldean kasu gehienetan bezala, Etxahunek *-larik* atzizkia erabiltzen du *-nean* ordez (*nintzenean* > *nintzalarik*). **Baina bada *-nean* Xiberoan, eta Lapurdin ere bai; Baxenabarre eta Nafarroa Garaia dira *-larik* gehien dutenak, eta egun baita Lapurdi ere, hor nagusitzen ari baita. Zuberoara ere heldu da *-larik*. Honen berri ematekotan, hobe azterketa bat ikusi izanaren ondoriozkoa izaita.**

Azkenik, *nüzü* (5) eta *Eztizüt* (91) aditz jokatuak ‘nauzu’ eta ‘ez dizut’ formarat itzuli nahiko bagenitu ere, ez da hala. Izan ere, Etxahunek zuketa **lokatiboa alokutiboa** baliatzen du anitzetan, hots, aktante ez den pertsona bat sartzen du adizkian. Beraz ‘naiz’ eta ‘ez dut’ lirateke itzulpen egokiak. Gauza bera gertatzen den *düzü* (91) adibidean interesgarria da azpimarratzea Jainkoari zuzentzen zaiola, hots, Hego Euskal Herrian bezala berorrika egin ordez zuka mintzo zaiola.

3. Sintaxia

Atal labur hune**kin** **has**teko **hau aztertzen hasteko**, kasu batzuetan osagarri zuzenak hartzen duen formari interesa gaitezen. Izan ere, *funtsen* (19) eta *zerbeiten* (48) kasuetan, absolutiboan izan ordez, genitibozko forma hartzen du osagarri zuzenak. Ezaugarri hori sarri ikusten da Ipar Euskal Herrian (‘filmaren begiratzea’ adibidez). **ez da Ipar Euskal Herrikoa, Nafarroa Garaiko ekialdean ere bada, eta baita euskara zaharrea ere**

Segitzeko, Etxahunek erlatibozkoa atzizkirik gabe eraikitzen du. *hartü nin emaztia aitak desiratia* « *aitak desiratia* » **apozioa da, ez da atzizki gabeko erlatibozkoa** (16) eta *amak ützi phartia* **hau bai** (20) kasuetan ikusten den bezala, *-tako/-dako* atzizkirik ez da agertzen **erlatibozko** perpauseko aditzaren ondotik (*desiratia* eta ez ‘desiratutako’, *ützi* eta ez ‘utzitako’).

4. Lexikoa

Testuan agertzen diren Xiberu**ko** hitzak aipatzeko, *behätü* (2) aditzak Ipar Euskal Herriko beste leku batzuetan (*behatu*) ‘begiratu’ adierazten baldin badu, Xiberu**an** ‘entzun’ erran nahi du ; *oroz* (5) ‘guziarengandik’ gisa itzutzen ahal ginuke ; *ardüira* (12) ‘sarritan’ litzateke, *egüzaita* (13) ‘gazaita’, *askazi* (94 ; ‘gertuko’/‘senide’) eta *desprimützera* (14) ‘herentziarik gabe uztera’.

Frantses lexikoari eginiko maileguak ugariak dira Etxahunen testuetan : *dolorusik* (1 ; ‘minez’), *süjeta* (6 ; ‘gaia’), *libre* (26 : ‘aske’) eta hari beretik *librantxaik* (29 ; ‘askatasunik’), *promes bat egin* (42 ; ‘hitz eman’), *kitatiüren* (38 ; ‘utziko’), *maleruser* (48 ; ‘zoritzarrekoiei’), *satisfatiürrik* (49 ; ‘aseturik’), *xangriak* (51 ; ‘tristura’), *deliberatü* (53 ; ‘erabaki’), *pelegri* (53 ; ‘beilari’), *orfelinen* (81 ; ‘umezurtzen’) eta *alagrantzia* (85 ; ‘poza’ edo ‘zoriona’) besteak beste.

Azkenik, euskararen Xiberu**o**ako edo Ipar Euskal Herriko aldaera anitz atxeman genitzake : *erranen* **baita Nafarroan ere, ekialde zabalekoa da** (7 ; ‘esanen’), *althe* **Zko endemikoa** (18 ; ‘alde’), *hunak* **IEHkoa, h-a Zuberoakoa** (38 ; ‘ondasunak’), *zelilako* **Z** (40 ; ‘zerurantzko’) eta *zeliüko* (43 : ‘zeruko’), *igaran* **Z** (46 ; ‘iragan’/‘pasa’), *Jinkuaren* **IEH** (52 ; Jainkoaren), *orhit* **Z eta Aezkoa** (80 ; ‘oroit’), *kürütxiareki* **Z** (87 ; ‘gurutzearekin’) eta *huñ* **Z** (89 ; ‘oin’) adibidez. **alderdi lexikoak zehaztasun haboro galdegiten du**

5. Laburbilduz, gure testua kokatuz

Etxahunen *Bi Berset Dolorusik* aztertu ondotik, ez dugu zailtasun haundirik testua espazioan eta denboran kokatzeko.

Espaziozko kokapenari dagokionez, aski fite ohartzen gira Xiberuotar batek idatzia dela, probintziako herrialdeko hain berezgarria den *ü* forma agertzen baitzauku testu osoan zehar. Gainerat, hobikarien ahoskabetze fenomenoak ere ondorio berdinerat eramaiten gaitu. Lexikoratarari begiratu ere begi bistako da Xiberuoko testu bat dela (*behatü* (2), *süjeta* (6), *orhit* (80) etab.). Morfologiari dagokionez, obserbatzen ahal dugu zuketan ari dela koblakaria, Xiberuan ohikoa den bezala. Orokortuz, Ipar Euskal Herriko elementu anitz ere atxemaiten ditugu : $u > i$ edo $o > u$ fenomeno bokalikoak, *izan*-en murrizketa morfologikoa, edo osagarri zuzenak har dezakeen genitibozko forma adibidez. ez dira Ipar Euskal Herrikoak, *hedadura zabalagoa dute* Azken elementu interesgarri bat aipatzeko, bearnes morfologiari eginiko mailegu bat agertzen da testuan. Horrek ere testua Xiberuan kokatzen laguntzen gaitu.

Denborazko kokapenarekin bukatzeko [*kokapena bukatu, ez kokapenarekin bukatu*], euskararen aldaera zaharrez josiak dira koplak hauek. Izenaren kasuan, inesibo, ablatibo eta sozietiboaren forma zaharrak baliatzen ditu Etxahunek. Erakusleen eta datibo pluralaren forma zaharrak ere atxemaiten ahal ditugu. Aditzekin en azterketa bukatzeko, **edin*-en forma zaharra eta datibo morfemaren errepikapena aipatzekoak dira.

Erreferentziak :

Kortazar, P., “Etxahunen bizia”, eGela (Euskal Testuak I), [kontsulta eguna 2022-11-14]
https://egela.ehu.eus/pluginfile.php/7581725/mod_resource/content/1/Etxahunen%20bizia%20eta%20koblak%20%28Paulo%20Kortazar%20%20Jon%20Kortazar%29.pdf

Wikipedia entziklopedia askea, Pierre Topet, 2021eko abendua (azken aldaketa), [kontsulta eguna 2022-11-14] : https://eu.wikipedia.org/wiki/Pierre_Topet

“Ahaide delizius huntan (1849), Hizkuntza-eskema”, eGela (Euskal Testuak I) :
https://egela.ehu.eus/pluginfile.php/7596836/mod_resource/content/1/Ahaide%20delezius%20Ohuntan%20%28Etxahun%201849%29.%20Hizkuntza-%20eskema.pdf

OEH = Orotariko Euskal Hiztegia, interneten eskuragarri :
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu-ES

Euskal Testuak I irakasgaieko apunteak, 2022.

ez da bibliografia irakurri